

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko abenduaren 14tik 2020ko urtarrilaren 3rako asteak.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Arabako Aldizkari Ofiziala 2019/12/16

• EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA)

- Arabako eraikuntza eta lan publikoak sektorearentzako 2020ko lan-egutegia. 3962 xedapena - 3 or.
- Arabako zurgintzako industrien sektorearentzako 2020ko lan-egutegia. 3963 xedapena - 3 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/12/19

- Ebazpena, 2019ko abenduaren 11koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den Metalaren sektoreko industria, teknologia eta zerbitzuen estatuko III. lan hitzarmena. 2019-18227 xedapena - 124 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/12/30

- Ebazpena, 2019ko abenduaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratu eta argitaratzen den Enaire Enpresa Entitate Publikoaren eta Aire Zirkulazioko Kontrolatzaileen lan hitzarmenaren 2019ko soldaten berrikuspenari buruzko akordio partziala. 2019-18717 xedapena - 18 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/12/14

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. – ANTOLAKETA.** – Ebazpena, 2019ko abenduaren 2koa, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarena, zeinaren bitartez aldatzen den Gizarte Segurantzako bilketa exekutiboko unitate batzuen lurralde esparrua. 2019-17923 xedapena - 3 or.

2019/12/17

- **SUSTAPEN MINISTERIOA.**

- **Ontziak.** - 724/2019 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, zeinaren bitartez aldatzen diren 665/1999 Errege Dekretua, apirilaren 23koa, Bidaia-ontzietan bidaiatzen duten pertsonen erregistroari buruzkoa, eta 1334/2012 Errege Dekretua, irailaren 21koa, Espainiako portura iristen diren edo portu horietatik ateratzen diren salgai ontziei eska dakizkiekeen informazio formalitateei buruzkoa. **2019-18017 xedapena - 7 or.**
- **Etxebizitza.** - 725/2019 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, zeinaren bitartez aldatzen den 2018-2021 Etxebizitza Plan Estatala arautzen duen martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorra. **2019-18018 xedapena - 3 or.**

2019/12/21

- **SUSTAPEN MINISTERIOA. – Ontziak. Ikuskaritza.** - 733/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, zerbitzu erregularretan ibilgailuak garraiatzen dituzten bidaiari ontzien eta abiadura handiko bidaiari ontzien ustiapenean segurtasuna bermatzeko ikuskaritza sistema bati buruzkoa; orobat aldatzen du atzerriko itsasontziei Espainiako portuetan egin beharreko ikuskaritzaren araudia onesten duen abenduaren 23ko 1737/2010 Errege Dekretua. **2019-18361 xedapena - 17 or.**

2019/12/24

- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA. – Ordainketa zerbitzuak. Kreditu entitateak.** 736/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, ordainketa zerbitzuen araubide juridikoari buruzkoa. Errege Dekretu horren bitartez aldatzen dira 778/2012 Errege Dekretua, maiatzaren 4koa, diru elektronikoko entitateen araubide juridikoari buruzkoa, eta 84/2015 Errege Dekretua, otsailaren 13koa, zeinak garatzen duen kreditu entitateen antolaketa, ikuskaritza eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legea. **2019-18425 xedapena - 49 or.**

2019/12/27

- **SUSTAPEN MINISTERIOA. – Eraikuntzaren Kode Teknikoa.** - 732/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, zeinaren bitartez aldatzen den Eraikuntzaren Kode Teknikoa; kodea martxoaren 17an onartu zen, 314/2006 Errege Dekretuaren bitartez. **2019-18528 – xedapena - 187 or.**

2019/12/28

- **ESTATU BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** - 18/2019 Errege Lege-dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bitartez ezartzen diren zerga, katastro eta gizarte segurantzako hainbat neurri. 2019-18611 xedapena - 12 or.
- **JUSTIZIA MINISTERIOA. – Kapital zuritzea.** - JUS/1256/2019 Agindua, abenduaren 26koa, kapital zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2020 Legearen 2.1.0 artikuluan deskribatutako zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Merkataritza Erregistroan enpresa edo profesional modura inskribatzeari buruzkoa. 2019-18612 xedapena - 14 or.
- **OGASUN MINISTERIOA.**
 - **Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna.** - 748/2019 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, honako errege dekretu hau aldatzen duena: 636/2014 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, zeinaren bitartez sortzen den Administrazio Publikoen Ekonomia-finantzako Informazio Zentrala eta zeinak arautzen duen Espainiako Bankuak eta finantza entitateek Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioari informazioa igortzea. 2019-18613 xedapena - 6 or.
 - **Sektore Publiko Estatal, Autonomiko eta Lokaleko Entitateen Inbentarioa.** - 749/2019 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bitartez onesten den Sektore Publiko Estatal, Autonomiko eta Lokaleko Entitateen Inbentarioaren funtzionamendu araudia. 2019-18614 xedapena - 12 or.
 - **Katastroa.** - HAC/1257/2019 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bitartez zehazten den zer udalerriri izango zaizkien aplikatzekoak 2020ko Estatuko Aurrekontu Orokorren legean katastro balioak eguneratzeko ezarritako koefizienteak. 2019-18615 xedapena - 32 or.
- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA. Kanpo merkataritza. Osasun kontrola.** – Ebazpena, 2019ko abenduaren 12koa, Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiarena, honako hau aldatzen duena: 1994ko urtarrilaren 20ko Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Aginduen I. eranskina, non ezartzen diren giza erabilera eta kontsumora bideratutako kanpo merkataritzako produktuen gaineko osasun kontroleko modalitateak, baita kontrol horiek egiteko egokitutako aduana esparruak ere. 2019-18621 xedapena - 90 or.

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. – Zirkulazioa. Neurri bereziak.** – Ebazpena, 2019ko abenduaren 20koa, Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzarena, zeinak ezartzen dituen zirkulazio araudiari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako neurri bereziak. **2019-18623 xedapena - 11 or.**

2019/12/31

- **OGASUN MINISTERIOA.**
 - **Balio Erantsiaren gaineko Zerga.** - HAC/1270/2019 Agindua, azaroaren 5koa, zeinaren bitartez onesten den 318 erdua, "Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Ondasunak ematen eta zerbitzuak ohiz egiten hasi aurretiko likidazio aldien zerga ordaintzen proportzioak erregularizatzea", eta zehazten den horiek non, nola, noiz eta zer prozedurari jarraituz aurkeztu behar diren. **2019-18746 xedapena - 5 or.**
 - **Zerga bereziak.** - HAC/1271/2019 Agindua, abenduaren 9koa, zeinaren bitartez onesten diren edari eratorrietarako aurreikusitako marka fiskalei buruzko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsitako Zerga Berezien Araudia garatzeko 26. artikuluan ezarritako arauak. **2019-18747 xedapena - 10 or.**
 - **Kontratazio administratiboa.** - HAC/1272/2019 Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bitartez argitaratzen diren 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sektore publikoko kontratazioetarako erabili beharreko kontratu mota bakoitzaren mugak. **2019-18748 xedapena - 2 or.**
 - **Zergak.** - HAC/1273/2019 Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bitartez onesten diren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren kudeaketan aplikatzekoak diren batez besteko salmenta prezioak. **2019-18749 xedapena - 641 or.**
 - **Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Administrazio-prozedurak.** - HAC/1274/2019 Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bitartez aldatzen diren azaroaren 5eko EHA/3111/2009 Agindua, zeinak onesten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteroko aitorpena-laburpena egiteko 390. erdua, bai eta azaroaren 22ko HAP/2194/2013 Agindua ere, zeinak arautzen duen zerga izaera duten zenbait autolikidazio, informazio-aitorpen, zentsu-aitorpen, komunikazio eta itzultze-eskaera aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak. **2019-18750 xedapena - 11 or.**

- **Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga.** - HAC/1275/2019 Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bitartez aldatzen den abenduaren 17ko EHA/3316/2010 Agindua, zeinak onesten dituen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 210., 211. eta 213. autolikidazio-ereduak –eredu horiek erabili behar dira hauek aitortzeko: establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei aplikatutako atxikipena, ondasun higiezinak erostean, eta erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia–, eta zeinaren bitartez ezartzen diren horiek aurkezteko eta ez-egoiliarren tributazioarekin lotutako beste arau batzuk aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura. **2019-18751 xedapena - 9 or.**
- **Zergak. Zerga-informazioa.** - HAC/1276/2019 Agindua, abenduaren 19koa, zeinaren bitartez aldatzen diren honako agindu hauek: 1999ko azaroaren 18ko Agindua, zeinak onesten dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kapital higigarriaren zenbait etekinen eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren aitorpena-agiria egiteko 123. eredua eta urteroko laburpena egiteko 193. eredua, pezetatan eta eurotan, bai eta besteren kapitalen erakarpina eta erabilpena ordezkatzeko duten edozein aktibo transmititzetik, amortizatzetik, itzultzetik, trukatzetik edo bihurtzetik eratorritako aipatutako zergen kontura egindako atxikipenen eta sarreraren aitorpena-agiria egiteko 124. eredua eta urteroko laburpena egiteko 194. eredua ere, pezetatan eta eurotan; azaroaren 23ko EHA/3895/2004 Agindua, zeinak onesten duen aktibo finantzarioekiko eta beste balio higigarri batzuekiko eragiketen urteroko aitorpena egiteko 198. eredua; azaroaren 7ko EHA/3300/2008 Agindua, zeinak onesten duen edozein finantza-erakundetan egindako kontuetatik eratorritako kontraprestazioa dela-eta lortutako kapital higigarriaren eta errenten errendimenduei buruzko 196. eredua; abenduaren 1eko EHA/3377/2011 Agindua, kapital higigarriaren zenbait errendimenduren gaineko kontura egindako atxikipenen eta sarreraren urteroko laburpena egiteko 193. eredua; urriaren 9ko HAP/2118/2015 Agindua, zeinak onesten duen 280. eredua “Epe Luzeko Aurrezpen Planei buruzko urteroko informazio-aitorpena”; urriaren 23ko HAP/2250/2015 Agindua, zeinak onesten duen errentak eratxikitze araubideko erakundeek aurkeztu beharreko urteroko informazio-aitorpena egiteko 184. eredua, eta urriaren 25eko HAP/1695/2016 Agindua, zeinak onesten duen elkarren laguntzaren esparruan egindako finantza-kontuei buruzko urteroko informazio-aitorpena egiteko 289. eredua. **2019-18752 xedapena - 25 or.**

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Kontratazioak jatorrian.** - TMS/1277/2019 Agindua, abenduaren 23koa, zeinaren bitartez arautzen den jatorrian egindako kontratazioen 2020rako kudeaketa kolektiboa. 2019-18753 xedapena - 40 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/12/30

- **XEDAPEN OROKORRAK. – LEHENDAKARITZA**
 - 11/2019 LEGEA, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena. 5891 xedapena - 102 or.
 - 12/2019 LEGEA, abenduaren 20koa, ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legea aldatzekoa. 5892 xedapena - 2 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/12/20

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 55/2019 Foru Dekretua, abenduaren 17koa. Onestea Eusko Jaurlaritza-Arabako Lurralde Historikoaren Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko abenduaren 5eko Erabakia, Arabako Lurralde Historikoan dauden eta estatuarenak diren errepideen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa. 4064 xedapena - 4 or.
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 12ko 658/2019 Foru Agindua, zeinak aldatzen baitu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 17ko 651/2007 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 190 eredua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako diru sarren urteko laburpenarena. 4026 xedapena - 2 or.
- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA).** - Hutsen zuzenketa, Arabako ehungintzaren merkataritzaren sektorearentzako hitzarmen kolektiboari dagokion argitalpenarena. Zuzendua: 2019/3903. 4032 xedapena - 1 or.

2020/01/03

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.**

- Foru Gobernu Kontseiluaren 58/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa. Onespena ematea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeari. **4167 xedapena - 3 or.**
- Foru Gobernu Kontseiluaren 59/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak. **4168 xedapena - 4 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/12/18

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2392/2019 FORU AGINDUA, abenduaren 12koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru-agindu horren bidez, lanaren etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredua onesten da. **2 or.**

2019/12/19

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 194/2019 FORU DEKRETUA abenduaren 17koa. Honen bidez, aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia. **2 or.**

2019/12/20

- **AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 202/2019 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren arteko transferentzien bitariko Batzordearen 2019ko abenduaren 5eko erabakia onesten duena. Erabaki horren bidez, zehazten da zer ondore izango dituen errepide arloko eginkizun eta zerbitzuen eskualdatzeak bizkaiko lurralde historikoan. **4 or.**

2019/12/31

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.**

- 5/2019 FORU ARAUA, abenduaren 11koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2018ko abenduaren 27ko 8/2018 Foru Araua aldatzen dueña. **2 or.**
- Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 FORU ARAUA. **50 or.**

- **AHALDUN NAGUSIA.** - Ahaldun Nagusiaren 228 /2019 FORU DEKRETUA, abenduaren 20koa, zeinaren bidez deklaritzen baita zein diren egun baliogabeak bizkaiko foru aldundiaren eremuan 2020an zehar egin edo aurkeztu behar diren egintza, tramite edo errekurtsio guztietarako. **2 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2019/12/20

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 54/2019 Foru Dekretua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko abenduaren 5eko akordioa, errepideen arloko eginkizun eta zerbitzuak erakunde erkideetatik lurralde historikoetara eskualdatzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan izango duen eragina zehazteari buruzkoa. **Disposición 8004 – 3 or.**

2019/12/23

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 604/2019 Foru Agindua, abenduaren 11koa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Emaizak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak eta bestelako ekarpenak. Urteko laburpen informatiboa» izena duen 182 eredua onetsi, eta haren aurkezpen moduak eta epea ezartzen dituen. **7816 xedapena - 33 or.**

2019/12/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 629/2019 Foru Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita 553/2017 Foru Agindua, abenduaren 26koa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredia onartu, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. **8065 xedapena – 9 or.**

2019/12/30

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 9/2019 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen. **8191 xedapena – 44 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**
 - 56/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatu, eta 2020an aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onesten dituen. **8269 xedapena – 8 or.**
 - 57/2019 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen baita kultura sustatzea helburu duten pizgarriak garatzeko. **8270 xedapena – 6 or.**

2019/12/31

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**
 - 648/2019 Foru Agindua, abenduaren 20koa, abenduaren 28ko 1175/2012 Foru Aginduaren bidez onetsitako 193 eta 194 ereduak aldatzen dituen. **8167 xedapena – 15 or.**
 - 649/2019 Foru Agindua, abenduaren 20koa, abenduaren 21eko 591/2016 Foru Aginduaren bidez onetsitako 196 eredia aldatzen duena. **8168 xedapena 9 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

2019/12/30

- BATZORDEAREN 2019/... BETEARAZPEN ERREGELAMENDUA (EB), 2019ko abenduaren 17koa, zeinaren bitartez ezartzen den jendearentzako jakinarazpen elektronikorako zerbitzuen hornitzaileek erabili beharreko kontratuaren laburpena egiteko eredu bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1972 Zuzentarauak (EB) xedatutakoari jarraikiz (EEEren ondoreetako testu pertinentea).
7 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO